

Bosgarrena.— Laborategietarako eta Ziurtatze Entitateetarako 2005eko ekitaldiko ordukako tarifak honako hauek izango dira:

Kategoria	Batez besteko tarifa
G1	78,81.
G2	49,74.
G3	34,88.
G4	29,62.
G5	8,07.

Seigarrena.— Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearentzako (UPV/EHU) edo Herri Administrazioetakoak diren —edo horiei lotuta edo horien menpe dauden— beste erakunde batzuentzako ordukako tarifak honako hauek izango dira 2005eko ekitaldian: 30 euro plantillan dauden langileentzat; eta zeharkako kostuari (30 euro) diruz lagunduko den proiektua gauzatzeko berariaz kontratatu den langile-riaren kostu zuzena gehituko zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko apirilaren 29a.

Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuodea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2529

111/2005 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko Dekretuaren hirugarren aldaketa egiteko dena.

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzen laguntzeko jarduerarantz batzuk ezartzen ditu. Dekretuak honako helburu hauek ditu: etxebizitza babestuaren eskaintza areagotzea, etxebizitzak alokatzeko politikak indarberritzea, hutsik dauden etxebizitzak berreskuratzea eta horiei balioa ematea, kolektibo jakin batzuei tratamendu berezia ematea, hiriak birgaitu eta berritzea eta abar.

Abenduaren 30eko 315/2002 Dekretua eta bere garapenerako emandako Aginduak onetsi zirenetik egoera berriak antzeman dira, eta horren ondorioz, Administrazioak bere jarduerara egoera berri horiei egokitu behar izan du. Testuinguru berean kokatu behar dira ondoko aldaketak, honako eremu hauetan eragina baitute:

Quinto.— Las tarifas horarias para el ejercicio 2005 para las Entidades de Certificación y Laboratorio, serán las siguientes:

Categoría	Tarifa Media.
G1	78,81.
G2	49,74.
G3	34,88.
G4	29,62.
G5	8,07.

Sexto.— Las tarifas horarias para el ejercicio 2005 para la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) o de otras entidades pertenecientes a las Administraciones Públicas o vinculadas o dependientes de las mismas, será de 30 euros para el personal propio o de plantilla y el resultado de sumar al coste indirecto (30 euros), el coste directo del personal contratado específicamente para realizar el proyecto subvencionado.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2005.

El Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

2529

DECRETO 111/2005, de 17 de mayo, de tercera modificación del Decreto sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

El Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, traza unos ejes de actuación con el objeto de facilitar el acceso a la vivienda de protección oficial. Es así que pretende incrementar la oferta de vivienda protegida, reforzar las políticas de alquiler, la puesta en valor de las viviendas vacías, el tratamiento particularizado a colectivos específicos, la intervención en la rehabilitación y renovación urbana, etc.

Desde la aprobación de este Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, y las Órdenes que lo desarrollan, se han ido detectando nuevas situaciones que requerían una adaptación de la acción de la Administración a las mismas. En este mismo contexto se plantean las siguientes modificaciones, que afectan:

– Alde batetik, Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren III. kapituluaren ezarritako babes ofizialeko etxebizitzak erosteko erregimenari buruzko araudian, eta zehatzago esanda, 16. eta 22. artikuluetan. Aldaketa honek, batetik, sarrera gordinen ponderazioa egoera ekonomikora egokitzen du, bost kide edo gehiago dituzten bizikidetzak-unitateei dagokienez, eta bestetik, etxebizitza-beharra errealitate fisikora egokitzen du, kasu horretan ere kolektibo horretarako, eta horrela kasu egin ahal izango zaie lehen kontuan hartzen ez ziren zenbait egoerari. Bi aldaketan bidez, Administrazioetatik babestu nahi dira ezaugarri bereziak dituen kolektibo baten etxebizitza-premia larriak, familia ugariak hain zuzen.

– Bestalde, Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren IV. Kapituluaren ezarritako babes ofizialeko etxebizitzaren erabilera-erregimenean, eta zehatzago esanda, 27. artikuluan, prezioaren konturako zenbaterakoak entregatzeari buruzkoan. 27. artikulua araberako artikulua horixe baita aldaketa honen helburua, babes ofizialeko sustatzaileek banku-abala aurkeztu behar dute edo etxebizitza-eroslearengandik jasotako diru-kopuruak ziurtatu behar dituzte, erositako etxebizitzaren eta eranskinen prezioan oinarrituta, zenbaterako guztiak itzultzeko berme gisa. Baina beste kasu batzuetan, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaile (publiko)ak sustapen osoa beste erakunde bati (erakunde hori Eusko Jaurlaritzaren mendean dago) eskualdatzen dio, eta hark babespeko errentamendurako utziko ditu. Kasu horietan ez dago ziurtatu edo bermatzeko arriskurik, erakunde publikoen edo sasipublikoen arteko sustapenetan, begien bistako arrazoiengatik, ezin baitzaie iruzurrik egin etorkizuneko maizterrei edo etxebizitzaren esleipendunei (arrisku horri abalen eta bermeen bidez aurre egin nahi zaio, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaile pribatuen kasuan). Aldaketa honen bidez, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketa batzuei abala jartzeko edo diru-kopuru horiek ziurtatzeko beharra kendu nahi zaie, baldin eta eskualdaketa horietan Eusko Jaurlaritzak partaidetzak baditu erakunde sustatzaile eskualdatzailean eta eroslean, eta erakunde sustatzaile eskualdatzailean duen partaidetzak gehiengoa badu eta kide anitzeko organo erabakitzaileetan gehiengoa izatea bermatzen badu.

– Bukatzeko, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeari buruzko araubidean. Araubide hori V. Kapituluaren ezarritako dago, sozietate publikoekin itundutako sustapenari buruz ari da eta bidea ematen die Zuzenbide Publikoko Entitateei edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kapitalaren gehiengoaren partaidetza duen sektore publikoko Sozietateei, lurzorua erosi eta

– Por un lado, a la regulación relativa al régimen de adquisición de las viviendas de protección oficial establecida en el Capítulo III del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y más concretamente a sus artículos 16 y 22. La presente modificación adecua por una parte, a la realidad económica, la ponderación de los ingresos brutos en cuanto a lo que a unidades convivenciales conformadas por cinco miembros o más se refiere y por otra parte adecua el requisito de necesidad de vivienda a la realidad física, también para este colectivo, posibilitando tener en cuenta diferentes situaciones que con anterioridad no se atendían. Ambas modificaciones persiguen poder tutelar desde las Administración situaciones de especial necesidad de vivienda de un colectivo con características propias como es el de las familias numerosas.

– Por otro lado a la regulación del régimen de disposición de las viviendas de protección oficial establecida en el Capítulo IV del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y más concretamente a su artículo 27 relativo a la entrega de cantidades a cuenta del precio. Dicho artículo 27, objeto de la presente modificación, obliga a los promotores de viviendas de protección oficial a avalar o asegurar las cantidades que percibe del ciudadano adquirente de vivienda de protección oficial a cuenta del precio de la vivienda y anejos que adquiere como garantía de la devolución total de dichas cantidades. Sin embargo existen otros supuestos en los que el promotor (público) de las viviendas de protección oficial transmite la promoción íntegra a otra entidad (controlada por el propio Gobierno Vasco) que las dedicará a su arrendamiento protegido. En estos casos no hay riesgo que asegurar o avalar, dado que la transmisión de las promociones entre organismo públicos o parapúblicos nunca podrá acabar, por razones evidentes, en un fraude a los futuros inquilinos o adjudicatarios de las viviendas (riesgo que se pretende combatir en el caso de los promotores privados de Vivienda de Protección Oficial con los avales y garantías). La presente modificación pretende excluir de la obligatoriedad de depositar aval o del aseguramiento de las referidas cantidades a aquellas transmisiones de viviendas de protección oficial en las que tanto el promotor transmitente como el adquirente sean empresas participadas por el Gobierno Vasco, siempre que la participación en la entidad promotora transmitente sea mayoritaria y garantice la mayoría en los órganos colegiados de decisión.

– Por último, a la regulación sobre promoción de viviendas de protección oficial, establecida en el Capítulo V en lo relativo a la promoción concertada con sociedades públicas posibilitando la percepción de ayudas para la adquisición de suelo y urbanización a Entidades de Derecho Público o Sociedades del sector público en cuyo capital participe de modo mayoritario la

urbanizatzeko laguntzak jasotzeko, baldin eta lurzoru hori babes ofizialeko erregimenen bati atxikita dauden etxebizitzak eraikitzeko bada edo sinatu beharreko itunean edo programa-kontratuan laguntzen onuradunak hitzematen badu diru-laguntza ematen duen Administrazio Publikoari lursailen jabetza soila emango diola, eta lursailen azalera-eskubideari gehienez 75 urtez eutsiko diola.

Hori dela eta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko maiatzaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.— Berriro idatzi da Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 16.2.b artikulua. Aurrerantzean, honela geratuko da idatzirik:

«b) 5 kide edo gehiago dituzten bizikidetzak unitateak, edo familia ugariak, baldin eta 36 m² baino gehiago eta 120 m² edo gutxiago duen etxebizitza baten titular badira, pertsona bakoitzeko 15 m² baino ratio txikiagoa izanik.»

Bigarren artikulua.— Berriro idatzi da Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 22.1.c artikulua. Aurrerantzean, honela geratuko da idatzirik:

«c) K eta E haztatzeko koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatzen direnak, honakoak izango dira:

K

kide bat edo bi: 1,00.

hiru kide: 0,95.

4 kide: 0,90.

5 kide: 0,80.

6 kide: 0,70.

7 kide: 0,60.

7 kidetik gora: 0,50.

E

hartzaile bat: 1,00.

bi hartzaile: 0,95.

hiru hartzaile edo gehiago: 0,90.»

Hirugarren artikulua.— Berriro idatzi da Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 27 artikulua. Aurrerantzean, honela geratuko da idatzirik:

«1.— Konturako zenbateko gisa eta uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuak onartutako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Araudiaren 114. artikulua ezarritako baldintzak bete ondoren, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileek ezin izango

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que dicho suelo tenga por destino la edificación de viviendas sujetas a algún régimen de protección oficial y que en el Convenio o Contrato Programa a suscribir la beneficiaria de las ayudas se comprometa a ceder a favor de la Administración Pública subvencionante la nuda propiedad de los terrenos, conservando el derecho de superficie sobre los mismos por un plazo máximo de 75 años.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de mayo de 2005,

DISPONGO:

Artículo primero.— Se da nueva redacción al artículo 16.2.b del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que tendrá el siguiente texto:

«b) Unidades convivenciales de 5 o más miembros, o familias numerosas que sean titulares de viviendas con una superficie mayor de 36 m² e inferior o igual a 120 m², cuando exista una ratio de menos de 15 m² por persona.»

Artículo segundo.— Se da nueva redacción al artículo 22.1.c del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que tendrá el siguiente texto:

«c) Los coeficientes de ponderación N y A, aplicables a la determinación de los ingresos anuales ponderados serán los siguientes:

N

1 ó 2 miembros: 1,00.

3 miembros: 0,95.

4 miembros: 0,90.

5 miembros: 0,80.

6 miembros: 0,70.

7 miembros: 0,60.

Más de 7: 0,50.

A

1 perceptor: 1,00.

2 perceptores: 0,95.

3 ó más perceptores: 0,90.»

Artículo tercero.— Se da nueva redacción al artículo 27 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que tendrá el siguiente texto:

«1.— En concepto de cantidades a cuenta y previo cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 114 del Reglamento de viviendas de protección oficial aprobado por Decreto 2114/1968, de 24 de julio, los promotores

diete horien eskuratzailerei eskatu etxebizitzaren eta eranskinen salmenta-prezioaren eta salerosketakontratua bisatu ondoren eskuratzaileri aitortutako maileguaren gehienezko zenbatekoaren arteko aldea baino zenbateko handiagorik.

Jasotako konturako zenbateko guztiak itzultzeko berme gisa aseguru-kontratuaren ordeztustatzaileak aurkez dezakeen banku-abala horretarako nahikoa botere duen pertsona batek luzatu beharko du.

2.– Aurreko puntuan ezarritakoa ez da aplikatuko soilik Eusko Jaurlaritzak partaidetzak dituzten sozietateen artean egindako etxebizitzasalerosketa eragiketetan, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketaren bitartez bete nahi badira Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxebizitzaren politika publikoan dituen helburuak.

b) Babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzen dituen erakunde sustatzailean Eusko Jaurlaritzak partaidetzak baditu, eta kapital sozialaren kuota gehiengoa bermatzen badio erakundearen kide anitzeko organo erabakitzaileetan.»

Laugarren artikulua.– Erantsi egin zaio idatz-zati berri bat, 3.a, Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 33. artikuluari. Idatz-zati berriak honako testu hau izango du:

«3.– Artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatutako Erakunde eta Sozietateek lurzorua erosi eta urbanizatze laguntza publikoak jaso ahal izango dituzte, dagoeneko erosi duten edo erosteko duten lurzoru hori babes ofizialeko erregimenen bati atxikita dauden etxebizitzak eraikitzeke bada. Kasu horretan, sinatu beharreko itunean edo programa-kontratuan laguntzen onuradunak hitzeman beharko badu diru-laguntza ematen duen Administrazio Publikoari lursailen jabetza soila emango diola, eta lursailen azalera-eskubideari gehienez 75 urtez eutsiko diola.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 17an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

de viviendas de protección oficial no podrán exigir a los adquirentes de las mismas importes superiores a la diferencia existente entre el precio de venta de la vivienda y anejos y la cuantía máxima del préstamo a reconocer al adquirente previo visado del contrato de compraventa.

El aval bancario que puede presentar el promotor alternativamente al contrato de seguro, como garantía de la devolución del total de las cantidades a cuenta percibidas, habrá de ser expedido por persona con poder suficiente al efecto.

2.– Lo prescrito en el número anterior no será aplicable a operaciones de compraventa de viviendas realizadas exclusivamente entre sociedades participadas por el Gobierno Vasco, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a) La compraventa de viviendas de protección oficial tenga por objeto cumplir con los fines de política pública de vivienda marcados por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

b) La entidad promotora transmitente de las viviendas de protección oficial esté participada por el Gobierno Vasco con una cuota de capital social que le garantice la mayoría en los órganos colegiados de decisión de la misma.»

Artículo cuarto.– Se añade un apartado 3 al artículo 33 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que tendrá el siguiente texto:

«3.– Podrán igualmente recibir ayudas públicas para la adquisición de suelo y su urbanización las Entidades o Sociedades a las que se refiere el apartado primero de este artículo que hayan adquirido o vayan a adquirir suelo con destino a la edificación de viviendas sujetas a algún régimen de protección oficial. En este caso será necesario que en el Convenio o Contrato Programa a suscribir la beneficiaria de las ayudas se comprometa a ceder a favor de la Administración Pública subvencionante la nuda propiedad de los terrenos, conservando el derecho de superficie sobre los mismos por un plazo máximo de 75 años.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.